

Makro-poligonoaren aurkako Batzarra
 Prentsaurrekoa
 2009-05-19

Labur, Batzarra sortzearen arrazoia aipatuko dugu

Makro-poligonoaren egitasmoa dela-eta aurtengo otsailean errebindikazio baten inguruan bildu ginen Urdiainen: proiektuaren exekuzioa atzeratzeko eskatzen dugu.

Horixe da Batzarraren funtsezko eskakizuna, Nafarroako Gobernuari proiektuaren eginbidean Moratoria eskatzen diogu, ez dugulako ikusten inolaz ere urgentziazko motiborik holako egitasmo batendako.

Proiektua atzeratzeko eskaera horrekin berehala bat egin zuten 225 urdiaindar adinez nagusik, eta Plataforman ideologia eta sentsibilitate politiko askotariko pertsonak bildu ditu Urdiainen eskaera honek.

Orain arteko ibilbidekoak aipatuz

Hiru hilabete hauetan hainbat pauso eman ditu plataformak.

Nafarroako Gobernuari proiektua atzeratzeko eskaerarekin Urdiaingo Udalera jo genuen, 225 herritarren sinadurekin.

Bestalde, [kexa aurkeztu genuen Nafarroako Arartekoan](#). Kontuan izan behar da 2008ko urrian bi hilabeteko epea zabaldu zela proiektuari administrazioarekiko auzibidean helegiteak aurkezteko, errekurtsuak jartzeko. Baina prozedura isilpean eraman zenez ([hemen duzue egoera hori ziurtatzen duen agiria](#)), Urdiaingo bizilagunoi informazio hori ezkutatu egin zitzaigun, eta helegiteak jartzeko aukerarik gabe eta defentsarik gabe geratu ginelako jo genuen Arartekoarengana.

Herrian hitzaldiak ematen ari gara. Lehenengoan, *“Nolako poligonoa behar dugu?”* izenburu pean emandako debaterako hitzaldian, poligonoen beste eredu batzuk izan genituen aztergai.

Aurrera begira, beste hitzaldi batzuk ere antolatuko ditugu.

Aldi berean, gure webgunean (www.urdiaain.info), eztabaidagai dugun proiektu honi orain arte jarri zaizkion alegazio guztien berri jasoko dugu, proiektu honek duen aurkakotasunaren adierazle baitira.

Urrats berriak

Orain, gure aldarrikapena dela-eta, moratoria eskaera dela-eta, beste pauso bat ematera goaz.

Sakandar guztiei jakitera eman nahi diegu zein den gure aldarrikapena eta zergatik eskatzen dugun makro-proiektua atzeratzea, eta hala baderitzote eskaera horrekin bat egin dezaten.

Horretarako, batetik, gure eskaeraren berri helaraziko diegu Sakanako eragile sozialei, sindikalei eta politikoei; baita ere kultura, hezkuntza eta aisialdiko taldeei.

Informazio gutuna bidaltzeaz gain, eskualdean jarduten duten hainbat eragile sozial, sindikal eta politikori **aldebiko bilkura** eskatuko diegu, zuzenean gure ikuspuntuen berri beraiei eman eta elkarrekin kontrastatzeko.

Eta bestetik, Sakanako instituzio publikoetara jo dugu, **mozio baten bidez gure eskakizuna debatitu eta aintzat har dezaten**.

Eta zergatik zuzendu gara Urdiaindik ibar osoko jendearengana eta jo dugu eskualdeko instituzioetara?

Ba, pisuzkoa den **arrazoi nagusia** ikusten dugu proiektu hau atzeratzeko gure aldarrikapenarekin eskualderako bidea urratzeko: **eskualterako poligonoa da**, eta ez inolaz ere Urdiain bezalako udalerrri bati dagokion poligonoa.

“Urgentzia versus moratoria” debate horretarako mozioa aurkeztu dugu eskualdeko instituzioetan.

Sakanako 15 udaletara eta Mankomunitatera jo dugu ez dugulako inolaz ere urgentziatzko motiborik ikusten Nasuinsak sustatu nahi duen neurri horretako egitasmo batentzako.

Sakanako instituzioetara sartutako eskabidean “Urdiain-Altsasu Udalez gaindiko **Plan Sektorialaren**” **beharra eztabaidan jartzeko bi arrazoi** nagusi hauek —eta baita proiektuari buruzko informazio osagarria eta proiektuaren dokumentazio osoa ere (eskuartean duzuen)— helarazi dizkiegu erabakigune horietan ari diren herri ordezkariak:

- Batetik, azpimarratu egin behar da proiektuaren ezaugarriak eta nolakotasunari begira, **eskualterako poligonoa** dela, eta ez inolaz ere harmoniaz Urdiain bezalako udalerrri bati dagokion poligonoa. Eskualderako izanik, Sakanako lurralde antolaketari dagokionez, eskualdea modu batean egituratu edo, gure iritziz, desegituratu egingo duelako. Holako erabakiak hartzeko unean Sakanako herri guztiek dute zeresana, ibar osoaren antolamenduari begira egiten diren inbertsio horiek beste modu eraginkor eta orekatuago batean egin daitezkeelako. Gu, adibidez, beste eskala bateko poligonoen alde gaude.
- Bestetik, urgentzia omen dela-eta, saihestu ezina zaigu **gaur egun bizi dugun kinka larriko ekonomiaren egoera eta ondorio sozialak**, orain arteko ereduak zalantzan jartzen dituen eta eskuartean dugun bezalako proiektu baten premia eta urgentzia ezbaian jartzen dituen oinarri oinarritik. Industria jasotzeko balizko hipotesiarekin gaur urgentziaz milioi bat metro koadroko poligono baten beharra, gure ustez, neurri gabeko aurreikuspen okerra da, eta ez du Burunda ibai arroko Urdiaingo nekazaritzarako lurrik hoberenak hondatu besterik egingo.

Berebiziko garrantzia duten arrazoi hauengatik jo dugu Sakanako instituzioetara, eta horren berri eman nahi diegu gaur sakandar guztiei.

Mozioen bidez, bitarteko horiek medio, **debatea zabaldu eta proiektua atzeratzeko eskatzen dugu**: denok, sakandar guztiok, informazio zehatza eta kontrastatua jasotzeko bitartekoak izan eta eskualderako den proiektu honetaz denok eztabaidatu eta aukera guztiak aztertzeko posibilitatea izan dezagun. Ondoren, arduraz, guztiok erabakiak hartu ahal izateko.

(Datorren domekan, maiatzaren 24an, informazio gunea jarriko dugu Olatzagutian egingo den “Sakandarren Egunaren” ospakizunetan).

Eskerrik asko.

Urdiainen, 2009ko maiatzaren 19an.